

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Enkarni Genua Espinosa

*Donostia,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



San Bartolome kalean jaioa, bi ahizpatan gazteena. Ama Burgosko probintziako herri txiki batekoa zuen, 15 urterekin Añorgara neskame etorria. Aita, berriz, donostiarra. Mirakontxan ibili zen eskolan Enkarni, moja ikastetxean. Hantxe hasi zen antzerkia egiten, eta gaztetxotan Antigona eta TEU antzerki-taldeetan ibili zen. Halaxe ezagutu zuen Manolo Gomez, bere senarra eta lankidea izango zena. 60ko hamarkadaren bukaeran umeak ikastolara eramatea erabaki zuten, eta euskara ikasten hasi ziren biak. Euskaltzale bihurtu ziren, eta hurrei euskarazko lanak eskaintzen: txotxongilo ikuskizunak. 1971n Txotxongillo taldea sortu zuten, eta ordutik etenik gabeko ibilbidea egin dute. Tolosako Titirijai jaialdiaren eta TOPIC zentroaren sorreran zein garapenean parte hartu zuen. Haurrentzat liburuak ere idatzi ditu Enkarnik. Hainbat sari jaso ditu. Donostiako San Telmo museoan egin genion elkarrizketa.

Zintak

DON-197

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-07
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hondartza jolastoki

- **Erref:** DON-197/004
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:02:16. **Bukatu:** 00:04:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Bi senide izan dira etxean. Bere haurtzaroko jolastokia hondartza zen. Toldoekin jolasten zuten. Goizez bainatzera joaten ziren zortzi egunez segidan amarekin. "Bainero"ak zeuden, eta sokei helduta ikasten zuten.

2. Umetako bainujantziak

- **Erref:** DON-197/005
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Arauzko bainujantzia jantzi behar izaten zuten mojetan zebiltzanek. Deskribatu egiten du. Oso barneratuta zituzten erlijioarekiko kontu asko.

3. Aberatsak eta pobreak bereizita mojen eskolan

- **Erref:** DON-197/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mirakontxan ibili zen eskolan, moja ikastetxean. Aberatsak eta pobreak bereizita zeuzkaten. Aberatsek batxilergoa egin zezaketen, baina pobreak titulurik gabe irteten ziren.

4. Ikasle aberatsak eta pobreak bereizita eskolan

- **Erref:** DON-197/008
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen eskolan, aberatsek "mendia"n jolasten zuten, zuhaitz eta lore artean. Pobreak, berriz, ikatzarekin jolasten zuten. Uniformeak desberdinak ziren. Deskribatu egiten ditu. Egunero mezetara joaten ziren, eliza neogotikora. Elizan ere aparte zeuden ikasle aberatsak eta pobreak.

5. Ikasle aberatsen "babespean" ikasle pobreak

- **Erref:** DON-197/009
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Ikasle aberats bakoitzak bere babespean zeukan ikasle pobre bana. Hilean behin merienda bat ematen zieten. Ohartzen ziren gaizki egina zegoela. Umiliazioa zela dio.

6. Pobre-aberats bereizketa hainbat eskolatan

- **Erref:** DON-197/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

San Bartolome, Sagrado Corazón eta La Asunción eskolatan nesken artean bereizketa egiten zuten, aberats eta pobreen artean. Mutilek normalki batxilergoa ikasteko aukera zeukaten. Orduan, lanean hasi zen.

7. Neskek etxetik kanpoko lana utzi ezkontzerako

- **Erref:** DON-197/011
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutil batekin hasi zen eta ezkondu ere bai. Normala zen neskek etxetik kanpoko lana uztea ezkondu aurretik, etxekoandre izateko.

8. "Acción católica"ko bilerak

- **Erref:** DON-197/012
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Elizatik gertu JOC, JIC eta JEC mugimendu sozialak zeuden, "Acción católica" izenekoak. Bilera haietan ikuspegi soziala zabaltzen zitzaion. Orduan hasi zen gogoetatzen maistra izateko zer egin behar zuen.

9. Filosofia eta Letrak ikasi zuenekoak

- **Erref:** DON-197/013
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ama zela, maistratarako ikastea erabaki zuen. Batxilergoko azterketak libretik egiten zituen. Bakarrik ikasten zuen etxean. Erabaki zuen Filosofia eta Letrak ikastea Deustuko Unibertsitatean, eta hala egin zuen. Ikaskideek asko lagundu ziotela kontatzen du.

10. Bi urterekin antzezle

- **Erref:** DON-197/015
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerkia beti egin izan du. Bi urterekin hasi zen eskolan, ahizparekin joan nahi zuelako. Mojak gelaz gela erabiltzen zuen, oholtza gainean bezala, bere besoetatik bertso batzuk errezitatzen. Urtero antzezlanak egiten zituzten.

11. Asteburuetan dibertitzeko, antzerkia

- **Erref:** DON-197/016
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Asteburuetan dibertitzeko gunea eskaintzen zieten mojek neskei. Zuzendaria antiguotarra zen, eta hango mutilen antzerki talde batekin elkartu zirenean, bere senarra izango zena ezagutu zuen, Manolo Gomez.

12. Antiguoko Luistarren zentrua eta "Acción católica"

- **Erref:** DON-197/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:37:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Antiguoko Luistarren zentroan mendizale taldea zegoen, "Iñude eta Artzaia", Gabonak, inauteriak, xakea, futbola... Aisialdirako lekuak izaten zituzten gazteek. Gazte garai osoan martxan ibili ziren. "Acción católica"n inguruari modu kritikoan begiratzeko trebatzen ziren.

13. Umetan San Telmora, beldurra pasatzera

- **Erref:** DON-197/018
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Umetan Urgull mendira joaten zen, neskekin. San Telmora nondik sartu bazekiten; ilunpean sartzen ziren, beldurra pasatzera.

14. Antzerki taldearekin Siziliara

- **Erref:** DON-197/019
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Teatro Estudio San Sebastián" taldean aritzen zen senarra. "TEU" antzerki taldearekin Siziliara joan zirenekoa kontatzen du.

15. Donostiako antzerki taldeak

- **Erref:** DON-197/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:43:29. **Bukatu:** 00:46:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maria Dolores Agirrek antzerkia egiten zuen, euskaraz. Club Vasco de Camping-ekoa eta "TEU" aipatzen ditu. Antzerki taldeekin programazioa osatzen zuen Udalak. Principal antzokian egiten zuten emanaldia, neguan.

16. Txotxongiloak etxean haurarentzat

- **Erref:** DON-197/022
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:47:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Donostian fama handia zeukan "Colorín" txotxongilo taldeak. 1967an lehenengo txotxongilo antzezlanaren prestatu zuen etxean haurren urtebetetzean.

17. Seme-alabak ikastolara

- **Erref:** DON-197/023
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:47:56. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Ikastolak hasita zeuden antolatzen, eta auzoan jakintza ikastola sortu zen. Beraien lagun batzuek ikastolan zituzten seme-alabak. Orduan ez zekien ezer euskaraz.</p>

18. Euskaraz ikasten, Mari Karmen Garmendiarekin eta Amezketan

- **Erref:** DON-197/024
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Mari Karmen Garmendiarekin ikasi zuen euskaraz, Patxi Altunaren liburua erabiliz. Udan Amezketara joateko proposamena egin zieten, euskalduntzeko, eta haraxe joan ziren, bi urtez segidan. Alabaren irakasleekin beti euskaraz egin izan du.</p>

19. Txotxongilo emanaldia, lehenengoz ikastolan

- **Erref:** DON-197/025
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:57:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Senarra eta biak oso antzerkizaleak ziren, eta ikastolan txotxongiloak egitea pentsatu zuten. Ikastolakoei eskaini zieten eta gogo onez onartu zuten. Ahoz aho zabaldu zen beraien berri eta batetik bestera ibili ziren.

20. "La Claca" konpainiakoekin Katalunian

- **Erref:** DON-197/026
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Txotxongiloak hobeto ezagutzeko, Kataluniara joan ziren uda batez ikastaro batera. Han bikote bati buruzko erreferentzia eman zieten eta harreman handia egin zuten; "La Claca" konpainiakoak ziren.

21. Charlevilleko nazioarteko txotxongilo jaialdia

- **Erref:** DON-197/028
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:00:53. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Frantziako txotxongilo jaialdi erraldoi baten berri eman zieten, Charleville herrian egiten zena, eta han ikusi zuten txotxongiloena oso mundu zabala zela.

22. Euskaraz txotxongiloak eginkizun

- **Erref:** DON-197/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Senarra eta biak euskara ikasten hasi ziren seme-alabei ulertzeko. Euskara eta Euskal Herria zer ziren ez zekiten. Eginkizuntzat hartu zuten euskarazko txotxongilo eskaintza egitea umeei.

23. Hasierako lanak txotxongiloekin

- **Erref:** DON-197/031
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:05:35. **Bukatu:** 01:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lehenengo lana izan zen "Txispa eta bere lagunak ikastolan". Beste hainbat lan izendatzen ditu. 1976an ipuin zaharrak irakurtzen hasi zen. "Sugea, gizona eta azeria" egin zuten lehenbizi. Estreinaldia Ataunen egin zuten eta Joxe Miel Barandiaran gonbidatu zuten. Ordukoa kontatzen du.

24. Txotxongiloetarako istorioak

- **Erref:** DON-197/033
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:10:07. **Bukatu:** 01:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Txotxongiloetako istorioak osatzerakoan, euskal ipuin tradizionalak, ipuin unibertsalak eta asmatutakoak erabili izan dituzte.

25. Genero ikuspegia hasieratik bere lanetan

- **Erref:** DON-197/035
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:13:41. **Bukatu:** 01:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Genero ikuspegia hasieratik landu dute. Metodologia bat idatzi zuen eskolan dramatizazioa lantzeko; marrazkilariarekin generoaren lanketa egin behar izan zuen.

26. "Leire eta Eneko" txotxongiloekin telebistan

- **Erref:** DON-197/036
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:16:41. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

RTVEko umeentzako "Pinpilinpauza" izeneko saioan, "Leire eta Eneko" txotxongiloekin istorioak kontatzen zituzten telebistan, ETB baino lehenago. Xabier Kintana izan zen gidoilaria eta zuzendaria.

27. Lehenengo Titirijai jaialdia

- **Erref:** DON-197/037
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:17:50. **Bukatu:** 01:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Titirijai jaialdian hasieratik parte hartu zuen. Ordurako Tolosan bazegoen abesbatzen lehiaketa. Umeentzako zerbait egin nahian hasi ziren. Manolok eta biek programazioa lotu zuten, eta izugarrizko arrakasta izan zuen.

28. TOPIC txotxongiloen zentrua eta Mariona

- **Erref:** DON-197/039
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:20:41. **Bukatu:** 01:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

TOPIC nazioarteko txotxongiloen zentroa nola sortu zen azaltzen du. Mariona panpinari buruzkoak aipatzen ditu, interpretatuz.

29. "Ostiralero afaria" antzezlanaz

- **Erref:** DON-197/040
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:23:20. **Bukatu:** 01:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskal gatazka
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Haurrentzat eta helduentzat idatzi izan ditu liburuak. Euskal gatazkaren garai gogorretan, fikzioan ez zela gaia lantzen azaltzen du. "Donostia Hiria" sariketara aurkeztu zuen antzezlan bat, "Ostiralero afaria" izeneko, gai hori ardatz hartuta.

30. "Ostiralero afaria" antzezlanaren ibilbideaz

- **Erref:** DON-197/041
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:27:00. **Bukatu:** 01:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

"Ostiralero afaria" antzezlanaren itzulpena argitaratu zuen antzerki-aldezkarik batean. Astorgatik (Espainia) deitu zioten, antzezlanaren estreinatze baimena eskatuz. Estreinaldia egin ostean, Donostian bi saio egin zituzten Kutxako aretoan. Uste du gaia ukitzen lehenengoa izan zela. Euskaraz ez zen egin. Obrarekin adierazi nahi zuena zen elkarrekin hitz egin behar zela.

31. Egindako lanagatik, saritua

- **Erref:** DON-197/042
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 01:30:15. **Bukatu:** 01:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Enkarnik egindako hainbat lan eta jasotako zenbait sari aipatzen dituzte. Beti gustura lan egin izan dute eta zortea ere izan dutela dio. Beste askori ez dietela egindako lan handia eskertu azaltzen du. Manolok eta biek beti elkarrekin lan egin izan dute.

32. "Erreka Mari" ez da modaz pasatzen

- **Erref:** DON-197/043
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:34:50. **Bukatu:** 01:36:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Etenik gabe txotxongiloekin lanean jarraitzen duela dio. "Erreka Mari" ez dela modaz pasatu azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com